2000

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

nº 3

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## Landa Inguruneko Turismoa edo euskal eszenatoki turistikoaren zabalkuntza

## El turismo rural o la ampliación del escenario turístico vasco

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.

*Nekazalturismoa baserriari eta landa-inguruneari bizirik eusteko sortu zen. Gaur egun, hamar urteren buruan, honelako baserrien jarduera turistikoaren garrantzi handia ukaezina da.*

*El agroturismo nació como fórmula para ayudar a mantener vivo el caserío y el entorno rural. Hoy al cabo de una década, el peso de su actividad turística, es más que evidente.*

# Nekazalturismoa landa-turismoaren bizkarrezur

# El agroturismo columna vertebral del turismo rural

Landa-turismoak harrituta utzi gaitu. Harridura horrek ez du zerikusirik turistarena egiten dugunean besteena baloratzeko dugun ahalmenarekin, besteentzat erakargarriak garela egiaztatzearekin baizik. Hurbilekoari eta egunerokoari balorea ematea besteek emozioak bizi ditzaten, hori izan da landa-turismoak eskaini digun ustekabe handia. Eta aurkikuntza horretaz euskal nekazalturismoetako arduradunek luze eta zabal hitz egin dezakete.

*El turismo rural nos ha sorprendido. Esa sorpresa no tiene que ver con nuestra capacidad de valorar lo ajeno cuando ejercemos de turistas, sino con el descubrimiento de comprobar que para otros somos atractivos. Otorgar valor a lo próximo y a lo cotidiano para que otros vivan emociones constituye la gran sorpresa que nos ha deparado el turismo rural. Y de este descubrimiento pueden hablar y mucho los responsables de los agroturismos vascos.*

**Establezimenduak eta urteko plazak landa-turismoko establezimenduetan. 1999. Euskadi.**

**Establecimientos y plazas anuales en establecimientos de turismo rural. 1999. Euskadi.**

| | Hotelak Hoteles | Nekazalturismoak Agroturismo | Landetxeak Casas rurales | GUZTIRA TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| Euskadi: | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 61 | 168 | 30 | 259 |
| Plazak \| Plazas | 557.720 | 570.976 | 97.820 | 1.226.516 |
| Araba / Álava: | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 22 | 31 | 6 | 59 |
| Plazak \| Plazas | 170.090 | 95.814 | 20.075 | 285.979 |
| Bizkaia: | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 22 | 50 | 10 | 82 |
| Plazak \| Plazas | 221.190 | 170.176 | 30.295 | 421.661 |
| Gipuzkoa: | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 17 | 87 | 14 | 118 |
| Plazak \| Plazas | 166.440 | 304.986 | 47.450 | 518.876 |

*Iturria / Fuente: Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Ostatuen Gidaliburua /* Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000



Ez zen erabaki erraza izan, ez eta gehiengoak hartutako ere, baina orain dela hamar urte Bizkaian lehenengo nekazalturismoa martxan jarri zenean, ibilbide bati eman zitzaion hasiera, non ziur aski gogoa eta ilusioak entrenamendua gainditzen baitzuten; baina arrazoia guztiz sinplea zen: edo zerbait egin edo baserri askorenak egin zuen.

Landa-turismoa orduko Europako beste herrialdeetan egiten zena egitera ausartu ziren baserrien eskutik etorri zen, nekazaritza-jardueraren eboluzioagatik eta garapen industrialak eta hiri-garapenak mehatxatutako landa-inguruaren biziraupenagatik kezkatuta zeudenak. Instalazioak hobetzeko ezarritako laguntza publikoak ere pisu handiko arrazoia izan ziren plazak eskaintzeko, zalantza izpirik gabe.

Baserrien ateak zabaltzea atalase bat zeharkatu eta sektore batean sartzea izan zen, zeinak, jarduera-sektore guztiek bezala, produktuaren kalitatea eta errentagarritasun ekonomikoa bilatu behar duen, nagikeriak lekurik ez duen geroz eta zorrotz eta lehiakorragoa den merkatu batean. Gaur egun badakigu landa-turismoa ez dela soilik nekazalturismoetan ostatu hartzea, baina horiei aitortu behar zaie Euskal Herriko eszenatoki turistikoa zabaltzeko izan duten papera.

*No fue una decisión fácil ni tampoco generalizada, pero cuando hace ahora diez años en Bizkaia se puso en marcha el primer agroturismo, se estaba iniciando una andadura para la cual probablemente las ganas y la ilusión superaban el entrenamiento; pero la razón era bien simple: o se hacía algo o la suerte de muchos caseríos estaba echada.*

*El turismo rural vino principalmente de la mano de aquellos caseríos que, preocupados por la evolución de la propia actividad agraria y por la supervivencia de un entorno rural amenazado por el desarrollo industrial y urbano, se atrevieron a hacer lo que ya se hacía en otros países europeos. No hay duda de que las ayudas públicas establecidas para la mejora de las instalaciones constituyó también una razón de peso importante para ofertar plazas.*

*Abrir las puertas de los caseríos fue cruzar un umbral y adentrarse en un sector que, como todos los sectores de actividad, debe buscar la calidad del producto y la rentabilidad económica en un mercado cada vez más exigente y competitivo que no permite el relajo. Hoy sabemos que el turismo rural no es solo el alojamiento en agroturismos pero a ellos hay que reconocerles el papel que han jugado para ampliar el escenario turístico del País Vasco.*

*259 establezimenduk eta 1.227.000 urteko plazek osatzen dute, 1999ko amaieran, EAEko landa-ostatuaren eskaintza. Gipuzkoa da plazen portzentaia handiena (%42) kontzentratzen duen lurraldea.*

*259 establecimientos y 1.227.000 plazas anuales configuran, a finales de 1999, la oferta del alojamiento rural de la CAPV. Gipuzkoa es el territorio que concentra mayor porcentaje de plazas (42%).*

**Establezimenduen banaketa landa-ingurunean motaren arabera. 1999. Euskadi**

**Distribución de los establecimientos en el medio rural por tipo. 1999. Euskadi.**




*Iturria / Fuente: Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000 /*
Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000

## Landa-turismoko establezimenduen sarea

## La red de establecimientos de turismo rural

Euskadin, landa-inguruneko ostatu-eskaintzak hotelak, nekazalturismoak eta landetxeak barne hartzen ditu, eta 1999ko amaieran 259 establezimenduk osatzen zuten guztira, urtean 1.226.516 plaza eskaintzen zituztela.

Kuantitatiboki eskaintza zabalena nekazalturismoei dagokie, establezimenduen %64a eta plazen %47a baitira, landetxeek, aurrekoekiko alde bakartzat nekazaritza-jarduera ez mantentzea dutenak, talde txikiena osatzen duten bitartean, batez ere plazen ikuspegitik begiratuta (%8a)

*En el País Vasco, la oferta de alojamientos en el medio rural incluye hoteles, agroturismos y casas rurales y a finales de 1999 estaba constituida por un total de 259 establecimientos que ofertaban 1.226.516 plazas al año.*

*Cuantitativamente la oferta más numerosa corresponde a los agroturismos que representan el 64% de los establecimientos y el 47% de las plazas, mientras las casas rurales cuya única diferencia con los anteriores es que no mantienen la actividad agraria, resulta el grupo más pequeño, sobre todo, desde la perspectiva de las plazas (8%)*

**Nekazalturismoa eta landetxeak. Euskadi 2000**

**Agroturismo y Casas rurales. Euskadi 2000**




*Iturria / Fuente: Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000 /*
Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000

**Hotel txikien banaketa. Euskadi 2000**

**Distribución de pequeños hoteles. Euskadi 2000**




*Iturria / Fuente: Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000 /*
Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000

Nekazalturismoetan kontzentratuz eta EUSTATeko Establezimendu Turistiko Hartzaileen (ETH) Inkestaren arabera, 1999an eskaintza Euskadin 168 establezimendutakoa zen, guztira urteko 570.976 plaza batzen zituztela. Establezimendu bakoitzaren batez besteko tamaina 9,3 plazakoa da.

Eskaintza berria denez, 1993-1999 bitarteko aldia etapa hedakorra izan da sarean establezimendu berriak sartzeari dagokionez, eta horrek plaza erabilgarrien %46ko hazkundea eragin du.

Nahiz eta establezimendu-kopuruaren urteko hazkunde-tasa %3,8koa izan den eta %6,6koa plazen kasuan, 1999an eskaintza jaitsi egin zen aurreko urtearekiko, Gipuzkoan gertatutako nekazalturismoen beherakadaren ondorioz.

*Centrándonos en los agroturismos y según datos de la Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores del EUSTAT (EETR), en 1999 la oferta en Euskadi ascendía a 168 establecimientos que sumaban un total de 570.976 plazas anuales. El tamaño medio de cada establecimiento es de 9,3 plazas.*

*Al tratarse de una oferta novedosa, el período entre 1993-1999 ha sido una etapa expansiva en cuanto a la incorporación de nuevos establecimientos a la red, que ha supuesto un incremento del 46% de las plazas disponibles.*

*Aunque la tasa anual de crecimiento del número de establecimientos ha sido del 3,8% y del 6,6% en el caso de las plazas, en 1999 la oferta disminuyó respecto al año anterior, por el descenso de agroturismos experimentado en Gipuzkoa.*

**Nekazalturismoen eboluzioa: 1993-1999. Euskadi eta Lurralde Historikoak**

**Evolución de la oferta de agroturismos: 1993-1999. Euskadi y Territorios Históricos.**

| | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | ∆% 93-99 incremento en el período |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi: | | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 134 | 146 | 158 | 164 | 172 | 175 | 168 | 25,37 |
| Plazak \| Plazas anuales | 390.185 | 436.540 | 497.130 | 534.360 | 546.405 | 577.533 | 570.976 | 46,33 |
| Araba / Álava: | | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 26 | 28 | 28 | 30 | 31 | 31 | 31 | 19,23 |
| Plazak \| Plazas anuales | 60.225 | 70.445 | 20.075 | 86.376 | 85.775 | 95.143 | 95.814 | 59,09 |
| Bizkaia: | | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 41 | 41 | 45 | 45 | 47 | 49 | 50 | 21,95 |
| Plazak \| Plazas anuales | 116.800 | 118.625 | 77.380 | 144.936 | 150.015 | 157.732 | 170.176 | 45,70 |
| Gipuzkoa: | | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 67 | 77 | 85 | 89 | 94 | 95 | 87 | 29,85 |
| Plazak \| Plazas anuales | 213.160 | 247.470 | 279.590 | 303.048 | 310.615 | 324.658 | 304.986 | 43,08 |

*Iturria / Fuente: EUSTAT, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta /* Encuesta de establecimientos turísticos recpetores.

**1993 eta 1999 bitartean euskal nekazalturismoek eskainitako urteko plazek %46ko hazkundea izan dute.**

**Entre 1993 y 1999 las plazas anuales ofertadas por los agroturismos vascos se han incrementado un 46%.**



Plazen eskaintzaren eboluzioa nekazalturismoko establezimenduetan eta landetxeetan. 1993-199. Euskadi.
Evolución de la oferta de plazas en establecimientos de agroturismo y casas rurales. 1993-1999. Euskadi.




Iturria / Fuente: *EUSTAT, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta /* Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores

Plazen hazkundea nekazalturismoetan eta landetxeetan. 1993-1999. Euskadi, Lurralde Historikoak
*Incremento de las plazas en agroturismos y casas rurales. 1993-1999. Euskadi, Territorios Históricos.*




Iturria / Fuente: *EUSTAT, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.* Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores

Lehenengo begiratuan gertaera hau bitxi samarra izan badaiteke ere, eta are eta gehiago azken urteotako euskal turismoaren koiuntura positiboa kontuan hartuta, sektorean aurreikusi daitekeen zirkunstantzia dugu dena den, behin establezimenduei instalazioen berriztapenagatik jasotako laguntzen ordez plazak mantentzea exijitzen zien gutxieneko denbora-epea betetzen hasi denean. Hala eta guztiz ere, joera minoritarioa izango dela aurreikusten da.

Horrenbestez, zenbait establezimenduk nekazalturismo gisa jarraituko ez dutela onartuz, 2000ko lehen seihilekoari dagozkion azken datuek eskaintzaren gorako eboluzioa adierazten digute berriz ere, joan den ekainean 200 establezimendutara iristen zena; establezimendu berri horietako gehienak Landetxe izendapenez agertzen zaizkigu. 1999ko lehen seihilekoarekin alderatuz, establezimenduen %19ko eta plazen %14ko hazkundea da.

*Aunque a primera vista este hecho pueda resultar algo extraño, más teniendo en cuenta la coyuntura positiva del turismo vasco de estos últimos años, se trata, sin embargo, de una circunstancia previsible en el sector, una vez que ha empezado a cumplirse el plazo de tiempo mínimo que exigía a los establecimientos mantener las plazas como contrapartida a las ayudas recibidas por la renovación de las instalaciones. Con todo se estima que será una cuestión minoritaria.*

*Reconociendo, por tanto, que algunos establecimientos no continuarán como agroturismos, los últimos datos correspondientes al primer semestre de 2000 ilustran de nuevo la evolución creciente de la oferta que el pasado mes de junio alcanzaba ya los 200 establecimientos; de estas nuevas incorporaciones, la mayoría, lo hacen bajo la denominación de Casa Rural. Respecto al primer semestre de 1999 supone un incremento del 19% de los establecimientos y del 14% de las plazas.*

*Nekazalturismoa da Gipuzkoako landa-ingurunean ohizkoagoa den establezimendu-mota, Bizkaian eta, batez ere, Araban hotel-plazen hornidura zabalagoak landa-ostatuko eskaintzaren dibertsifikatze handiagoa ahalbidetzen duen bitartean.*

*El agroturismo constituye el tipo de establecimiento más frecuente en el medio rural guipuzcoano mientras en Bizkaia y sobre todo en Álava la mayor dotación de plazas hoteleras contribuyen a una mayor diversificación de la oferta de alojamiento rural.*



**Establezimenduen eta plazen lurralde-banaketa nekazalturismoetan eta landetxeetan. 1999. Lurralde Historikoak**

**Distribución territorial de los establecimientos y plazas en agroturismos y casas rurales. 1999. Territorios Históricos**

Establezimenduak / Establecimientos




Plazak / Plazas




Iturria / Fuente: EUSTAT, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta / Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores

Nekazalturismoa euskal landa-inguruaren ostatu-eskaintzaren zutabe nagusi izatea Gipuzkoari zor zaio batez ere, bertan kontzentratzen baitira Autonomia Erkidegoko nekazalturismoko plaza guztien %53a.

Lurralde honetan kontzentratuz, bertako 87 establezimenduak eta eskaintzen diren urteko 300.000 plazak bere eskaintza propioaren ia %60a dira, eta existitzen diren beste 17 landa-hotelek %32a eskaintzen dute plazei dagokionez. Gainerako %8a landetxeei dagokie.

Araban eta Bizkaian ordea, landa-ingurunean erabilgarri dauden hotel-plazak guztirako eskaintzaren erdia baino gehiago dira, eta bertako nekazalturismoetan erabilgarri daudenak gainditzen dituzte. Zehatz esanda, Araban zein Bizkaian, lurralde bakoitzak dituen 22 establezimenduek plazen % 59a eta %53a ekartzen dute hurrenez hurren.

*Esta hegemonía del agroturismo como pilar de la oferta de alojamiento del medio rural vasco, se debe fundamentalmente a Gipuzkoa, donde se concentra el 53% de toda las plazas de agroturismos de la Comunidad Autónoma.*

*Centrándose en este territorio, sus 87 establecimientos y las más de 300.000 plazas anuales que ofertan suponen casi el 60% del total de su propia oferta mientras los 17 hoteles rurales existentes, en términos de plazas, aportan otro 32%. Las casas rurales representan el 8% restante.*

*En Araba y Bizkaia, sin embargo, las plazas hoteleras disponibles en el medio rural representan más de la mitad de la oferta total y superan las disponibles en sus agroturismos. Concretamente, tanto en Araba como en Bizkaia, los 22 establecimientos hoteleros con que cuenta cada territorio aportan el 59% y 53% de plazas respectivamente.*

## Landa-turismoa gure inguruko erkidegoetan

## El turismo rural en las comunidades de nuestro entorno

**Landa-turismoko establezimenduen eta plazen kopurua. 1999. Espainia Berdea eta Nafarroa**

**Establecimientos y plazas anuales en establecimientos de turismo rural. 1999. España Verde y Navarra.**

| | Hotelak<br>Hoteles | Nekazalturismoak<br>Agroturismo | Landetxeak<br>Casas rurales | Eraikin Bereziak<br>Edificios singulares | Bestelako<br>Otros | GUZTIRA<br>TOTAL | Eguneroko plazak / 1000 biztanle ratioa<br>Ratio Plazas diarias/1000 Habitantes |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Asturias: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | - | 77 | - | 20 | 281 | 378 | |
| Plazak \| Plazas | - | 163.520 | - | 123.005 | 765.040 | 1.051.565 | 2,7 |
| Cantabria / Kantabria: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | - | 4 | - | 19 | 190 | 173 | |
| Plazak \| Plazas | - | 12.775 | - | 139.795 | 743.870 | 743.870 | 4,7 |
| Euskadi: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 61 | 168 | 30 | - | - | 259 | |
| Plazak \| Plazas | 557.720 | 570.976 | 97.820 | - | - | 1.226.516 | 1,6 |
| Galizia / Galicia: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | - | 40 | - | 37 | 163 | 240 | |
| Plazak \| Plazas | - | 132.860 | - | 216.810 | 604.075 | 953.745 | 1,0 |
| Espainia Berdea Guztira / España Verde: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 61 | 89 | 30 | 76 | 594 | 1.050 | |
| Plazak \| Plazas | 557.720 | 880.131 | 97.820 | 479.610 | 2.112.985 | 4.128.266 | 1,8 |
| Nafarroa / Navarra: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 20 | - | 410 | - | - | 430 | |
| Plazak \| Plazas | 236.520 | - | 976.010 | - | - | 1.212.530 | 6,3 |
| Espainia Berdea+Nafarroa / España Verde+Navarra: | | | | | | | |
| Establezimenduak \| Establecimientos | 81 | 289 | 440 | 76 | 594 | 1.480 | |
| Plazak \| Plazas | 794.240 | 880.131 | 1.073.830 | 479.610 | 2.112.985 | 5.340.796 | 2,1 |

Iturria/Fuente: *Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000.*
*Turespaña, Turismoko Idazkaritza Nagusia, Landa Turismoaren Liburu Berdea, Nafarroako Gobernua, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua.*
Gobierno Vasco, Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000.
Turespaña, Secretaría General de Turismo, El Libro Verde del Turismo Rural . Gobierno de Navarra, Departamento de Industria, Comercio, Turismo y Trabajo.

Landa-eskaintza osoa kontuan hartuta, hau da, hotelak, nekazalturismoa eta landetxeak, Euskadik mila biztanleko 1,6 plazako ratioa du, eta horrek azkenaurreko postua ematen dio, Galizia baino gainditzen ez duela, Espainia Berdeak eta Nafarroak osatutako multzoan.

*Teniendo en cuenta el conjunto de la oferta rural, es decir, hoteles, agroturismo y casas rurales, Euskadi presenta un ratio de 1,6 plazas por mil habitantes, lo que le sitúa en el penúltimo lugar, solo superado por Galicia, en el conjunto de la España Verde y de Navarra.*

*Nafarroa da hurbileko ingurunean landa-ostatuko hornidura handiena duen Autonomia Erkidegoa: 6,3 plaza 1000 biztanleko. Euskadiren lehiakide nagusia da turismo-mota honi dagokionez, zalantzarik gabe.*

*Navarra constituye la Comunidad Autónoma con mayor dotación de alojamiento rural en el entorno próximo: 6,3 plazas por 1000 habitantes. Constituye, sin duda, el principal competidor de Euskadi en este tipo de turismo.*

**Plazen banaketa landa-turismoko establezimenduetan. 1999. Espainia Berdea eta Nafarroa**

**Distribución de las plazas en establecimientos de turismo rural. 1999. España Verde y Navarra.**




Iturria / Fuente: *Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000. Turespaña, Turismoko Idazkaritza Nagusia, Landa Turismoaren Liburu Berdea Nafarroako Gobernua, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua.*
Gobierno Vasco, Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000. Turespaña, Secretaría General de Turismo, El Libro Verde del Turismo Rural . Gobierno de Navarra, Departamento de Industria, Comercio, Turismo y Trabajo.

Espainia Berdea Asturias, Kantabria, Euskadi eta Galiziako Autonomia Erkidegoek osatzen dute, eta guztien artean lau milioi plaza pasatxoko landa-eskaintza osatzen dute, eta horietatik %30a inguru Euskadiri dagokio, plazak eskaintzeari dagokionez lehen Erkidegoa dela. Halaber, 1000 biztanleko ratioari buruzko terminoetan, emaitzarik onenak Kantabriari dagozkio, 4,7, nahiz eta berak duen kopuruari dagokionez sarerik murritzena. (%22).

Dena den, Nafarroa da, Espainia Berdean barne hartzen ez den Erkidegoa, ahaleginik handiena egin duena landa-inguruneko eskaintza-hornidurari dagokionez. 430 establezimendu dituela, Euskadiren antzeko eskaintza egiten du plazei dagokionez, eta horrek 1000 biztanleko 6,3ko ratioa ematen du.

*España Verde está formada por las Comunidades Autónomas de Asturias, Cantabria, Euskadi y Galicia y entre todas suman una oferta rural de algo más de cuatro millones de plazas, de las que casi el 30% corresponden al País Vasco, que se convierte así en la primera Comunidad en cuanto a aportación de plazas. Sin embargo en términos de ratio por 1000 habitantes los mejores resultados corresponden a Cantabria, 4,7, aunque es la que presenta la red numéricamente menos extensa (22%).*

*Con todo Navarra, Comunidad no incluida en la España Verde, es la que mayor esfuerzo ha realizado en cuanto a dotación de oferta en el entorno rural. Con un total 430 establecimientos ofrece un oferta casi similar a la del País Vasco en cuanto a plazas lo que resulta un ratio de 6,3 por 1000 habitantes.*

**Espainia Berdearen markoan, Euskadik landa-ostatuetan plaza erabilgarrien %30a ekartzen du, batez ere nekazalturismoan erabilgarri daudenak nabarmenduz.**

**En el marco de la España Verde, Euskadi aporta el 30% de las plazas disponibles en alojamientos rurales, destacando especialmente las disponibles en agroturismo.**



Autonomia Erkidego desberdinen arteko establezimendu-moten araberako eskaintzaren osaerari dagokionez, datuak argigarri gisa eskaintzen dira, izan ere Espainia Berdearen Autonomia Erkidego bakoitzeko eta Nafarroako datu partzialen konparazioa ariketa arriskutsua gerta baitaiteke, erabilitako sailkapenen heterogeneotasuna kontuan hartuta. Horien arabera, Euskadin ez legoke establezimendurik Eraikin Berezi gisa katalogatzeko modukoa, eta alderantziz, Kantabria, Asturias edo Galizian ez legoke landa-hotel bakar bat ere.

*En cuanto a la composición de la oferta según tipo de establecimiento entre las distintas Comunidades Autónomas, los datos se ofrecen a título ilustrativo porque la comparación de datos parciales de cada Comunidad Autónoma de la España Verde y Navarra puede convertirse en un ejercicio arriesgado dada la heterogeneidad de clasificaciones utilizadas. Según éstas en Euskadi no existiría ningún establecimiento susceptible de ser catalogado como Edificio Singular, y a la inversa, en Cantabria, Asturias o Galicia no existe ningún hotel rural.*

*Mila biztanleko plazak landa-turismoko establezimenduetan. 1999. Espainia Berdea eta Nafarroa*
Plazas por mil habitantes en establecimientos de turismo rural. 1999. España Verde y Navarra




Mila biztanleko plazak / Plazas por 1.000 habitantes

**Iturria / Fuente:** Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Landa Inguruneko Hotel Txikien eta Establezimenduen Gidaliburua 2000. Turespaña, Turismoko Idazkaritza Nagusia, Landa Turismoaren Liburu Berdea Nafarroako Gobernua, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua.
*Gobierno Vasco, Gobierno Vasco, Dpto. de Industria, Comercio y Turismo, Guía de Pequeños Hoteles y Alojamientos en el Medio Rural.2000. Turespaña, Secretaría General de Turismo, El Libro Verde del Turismo Rural . Gobierno de Navarra, Departamento de Industria, Comercio, Turismo y Trabajo.*

Nekazalturismoa ostalarien establezimendu gisa, non nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera mantentzen den, bai litzateke konparagarria Espainia Berdearen markoan. Ildo honetan, aipagarria da gainerako Erkidegoetan duen protagonismo txikiagoa eta eskaintza honetako euskal nagusitasuna, Espainia Berdearen nekazalturismo-plazen guztirakoaren %65a baita.

*El agroturismo como establecimiento de huéspedes en el que se mantiene la actividad agropecuaria sí resultaría comparable en el marco de la España Verde. En este sentido cabe destacar su menor protagonismo en el resto de las Comunidades y la hegemonía vasca de esta oferta que supone el 65% del total de plazas de agroturismo de la España Verde.*

## Sarearen gaur egungo egokitasuna ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibo bikoitzetik

## La adecuación actual de la red desde la doble perspectiva cuantitativa y cualitativa

Zenbakizkoa soilik den ikuspegitik eta gaur egungo betetze-mailatik eratorritako emaitzen arabera, establezimenduak sobera daudela esan daiteke –asteko egun eta urteko sasoi jakinetan behintzat-, gehienentzat jarduera osagarria izango ez balitz.
Baina une honetan kezka ez da plazak sobera edo faltan ote dauden, prozesu bati gaineratzeko premia onartzea baino, non sektore turistiko osoa dagoen inplikatuta: kalitatearen ziurtapena.
Prozesu boluntarioa da, zeinari establezimendua atxiki behar zaion, betiere ondoko eskakizunak betetzen baditu:

*Desde una perspectiva estrictamente numérica y en base a los resultados derivados del actual grado de ocupación, podría decirse que sobran establecimientos -al menos en determinados días de la semana y épocas del año- si no fuese porque para la mayoría se trata de una actividad complementaria.*
*Pero en estos momentos la preocupación no es tanto si sobran o faltan plazas, sino aceptar la necesidad de incorporarse a un proceso en el que está implicado todo el sector turístico: la certificación de calidad.*
*Se trata de un proceso voluntario al que debe adherirse el establecimiento siempre y cuando cumpla los siguientes requisitos:*

*Trantsizio-unea landa-establezimenduetarako, eskaini beharreko zerbitzuaren kalitate-exijentziak zein geroz eta zorrotzagoa den eskariaren jomugak direla-eta.*

*Momento de transición para los establecimientos rurales debido tanto a las exigencias de calidad del servicio a ofertar como a las aspiraciones de una demanda cada vez más exigente.*

- Elkarte bateko kide izatea
- Fakturak formatu ofizialean
- 25 milioiko erantzukizun zibileko asegurua izatea.

Une honetan, elkartutako nekazalturismoen (180) %50ak-60ak bitartean atxikimendu-protokoloa sinatu du jada prozesuan parte hartu eta kalitatearen Q-a lortzen saiatzeko. Elkartutako hotelen kasuan, bostek.

Prozesu honetan sartzeko puntu baldintzagarrienen artean gelen %50ak bainua izateko exijentzia nabarmentzen da, edo gutxienez 12 m2-ko gelak izatekoa, aldez aurretik nekazalturismo askok bete ezin dituztela dakiten eskakizunak. Era berean, egin beharreko gastuen aurreikuspenak, esate baterako prozesuak eskatzen duen kanpo-auditoretza, jabe asko atzera botatzen ditu aldez aurretik.

- *Pertenecer a una asociación*
- *Facturas en formato oficial*
- *Tener un seguro de responsabilidad civil de 25 millones*

*En este momento entre un 50%-60% de los agroturismos asociados (180) han firmado ya el protocolo de adhesión para participar en el proceso y tratar de conseguir la Q de calidad. En el caso de los hoteles asociados, se trata de 5.*

*Entre los temas más condicionantes para involucrarse en este proceso destaca la exigencia de disponer del 50% de las habitaciones con baño o habitaciones de 12 m$_2$ como mínimo, requisitos que a priori muchos agroturismos saben que no pueden cumplir. Igualmente la previsión de gastos a realizar tales como la auditoría externa que requiere el proceso hace desistir de antemano a muchos propietarios.*



| Kalitatearen Q-aren helburuak eta arauak landa-establezimenduetan | Objetivos y Normas de la Q de Calidad en los establecimientos rurales |
|---|---|
| **Kalitatearen Q-aren helburuak landa-turismoko establezimenduetan:** | **Objetivos de la Q de calidad en los establecimientos de turismo rural:** |
| Ostatu-modalitate honen garapen lehiakorra ahalbidetzea | Facilitar el desarrollo competitivo de esta modalidad de alojamiento |
| Jasangarritasun-irizpideak gaineratzea | Incorporar criterios de sostenibilidad |
| Sektorea kohesionatzea | Cohesionar el sector |
| Eskaintza merkatuan hobetzea | Mejorar la oferta en el mercado |
| **Kalitatearen Q-aren arauak landa-turismoko establezimenduetan ondokoekiko:** | **Normas de la Q de Calidad en los establecimientos de turismo rural en relación a:** |
| Azpiegiturak eta ekipamendua | Infraestructuras y Equipamiento |
| Harrera eta egonaldia | Acogida y Estancia |
| Garbitasuna mantenamendua | Limpieza y Mantenimiento |
| Segurtasuna eta ingurugiroa | Seguridad y Medioambiente |
| Merkaturatzea | Comercialización |
| Zuzendaritza | Dirección |

*Kalitatezko ostatua izatea, gelan bainua duena, hiriko hotel bat baino merkeagoa eta ondo komunikatutakoa herrigune garrantzitsuekin, industrialak edo turistikoak direla, gaur egun landa-establezimendu bat aukeratzeko arrazoia izan daiteke.*

*Tener un alojamiento de calidad, con baño en la habitación, más barato que un hotel de ciudad y bien comunicado de núcleos de población importantes, bien sea industriales o turísticos, puede ser hoy en día la razón para elegir un establecimiento rural.*

Dena den, bainuaren eskakizuna eskariak berak geroz eta gehiago eskatzen duen zerbitzua da, beste zenbait zerbitzu bezala, esate baterako telefonoa geletan, xaboitxoak bainuetan, garbitegia, oztopo arkitektonikoak kentzea eta abar, eta gai hauek establezimendu hauen izaera eta nortasunaren eta emandako zerbitzuen arteko oreka bat bilatzeko premia argi eta garbi uzten dute.

Izan ere, zenbait establezimenduk, batez ere herrigune garrantzitsuetatik hurbil daudenak, hotelei dagokien eskariarekin jarduten dute, instalazioen kalitate- eta prezio-arrazoiengatik nekazalturismoetara jotzen duena. Hau argiagoa da kostaldean, eta dinamika horrek establezimendua eskarira egokitzea behartzen du, eta ez alderantziz, nekazalturismoen jatorrizko izpiritua halakoa izan arren: landa-ingurunean murgildu nahi diren bezeroak hartzea eta bertako bizimoduan parte hartzea, nahiz eta azken hau, dirudienez, geroz eta gutxiago bilatzen den.

*De todos modos, el requisito del baño se reconoce que es también un servicio cada vez más solicitado por parte de la propia demanda al igual que otros servicios tales como teléfono en las habitaciones, jaboncillos en los baños, lavandería, supresión de barreras arquitectónicas, etc. temas que ponen de manifiesto la necesidad de buscar un equilibrio entre el espíritu e identidad de estos establecimientos y los servicios prestados.*

*Porque sucede que determinados establecimientos, especialmente aquellos próximos a núcleos importantes de población, están atendiendo una demanda propia de los hoteles que se desplaza a los agroturismos por razones de calidad y precio de las instalaciones. Esto es sobre todo más claro en la zona de la costa y es una dinámica que obliga al establecimiento a adaptarse a la demanda y no a la inversa como era el espíritu original de los agroturismos: acoger a clientes que buscan sumergirse en un entorno rural y participar de su estilo de vida, aunque esto último, al parecer, cada vez se busca menos.*



Dena den, ingurunea, paisajea, lasaitasuna eta abar dira oraindik erakargarririk garrantzitsuenak bisitariari begira, baina alderdi hauekin batera geroz eta ardura handiagoa antzeman daiteke dekorazioarekiko, bai eta gelez gain beste zenbait espazio erabili ahal izatea ere, egongela bat edo sukalde independente bat, esaterako.

*Obviamente el entorno, el paisaje, la tranquilidad, etc. siguen reconociéndose como los atractivos más importantes de cara al visitante pero junto a estos aspectos también se aprecia una preocupación cada vez mayor por la decoración así como poder disponer de otros espacios además de las habitaciones como son una sala de estar o una cocina independiente.*

# Enplegua eta kudeaketa landa-establezimenduetan

# El empleo y la gestión en los establecimientos rurales

*Emakumeak nekazalturismoen hedapenaren benetako motorrak izan dira. Haiek gabe, zaila izango zen gaur egun dagoen sarea izatea.*

*Las mujeres han sido los verdaderos motores de la expansión de los agroturismos. Sin ellas, difícilmente se hubiese conseguido disponer de la red actual.*

Landa-establezimenduen kudeaketa baserrian bizi direnen esku dago normalean, jabeak edo hauen semeak direla. Familia-kudeaketa izaten da. Oro har, establezimendua artatzen duen pertsonaren perfila ondokoa da; emakumea, adin ertainekoa (30-50 urte), eta kasurik gehienetan diru-iturri estra gisa familiako ekonomiari laguntzeko etxea zabaltzera animatu dena. Berariazko prestakuntzarik eza ekimenez aurrera jarraitzeko nahiak eta adoreak ordezkatu zuten gehienetan, bai eta ikastaroek eta zenbait elkartek emandako eta oraindik ematen jarraitzen duten aholkularitzak ere (Nekazalturismoa Elkartea, Mendiko Nekazaritza, Hotelak...)

Azken urteotan jabe gazteen belaunaldi berria agertzen hasi da, etxe edo baserri bat erostera animatzen direnak landa-turismoko negozio bat zabaltzeko, jarduera nagusi gisa, eta ez osagarria.

Kasu honetan, arduradunek goragoko prestakuntza orokorra dute, jarduerarekin erlazionatuko berariazkoagoa denarekin osatu dutena (negozioaren kudeaketa, bezeroari arreta eta abar).

Dena den, hizkuntzen ezagutza, komunikazio-teknikak edo informatika bezalako alderdiak prestakuntza-arlo garrantzitsuak dira onartze-maila dezentea duten elkarteentzako.

